

Goierriarra

356. zenbakia 2009ko otsailak 27

INTSUMISIOAK 20 URTE



VIAJES
ABIO

BIDAIAK

1999 2009

Kale Nagusia, 38 Beasain | T 943 80 53 11 | F 943 80 56 42 | abio@abio.es



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria
13. zenbakia zure esku



Zeinuen bidez
komunikatzen

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Xabier Mendiguren Elizegi.

5. Ingurugiro txokoa: Errausketarik ez!

6. Euskara txukuntzen: Denetik (XV)


8. Erreportajea: Intsumisioak 20 urte.

14. Erreportajea: Latinoamerikako emakumeen hitza.

16. Kirola: Jose Antonio Blanco korrikalaria.

22. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabier Mendiguren Elizegi

Igartza Saria: 10 urteko uzta

Egunotan aurkeztuko da Katixa Agirrereren bigarren ipuin-bilduma: *Habitat*; hilabete barru, berriz, Irati Jimenezen eleberri bat plazaratuko da: *Nora ez dakizun hori*. Biak ere Igartza Sariaren emaitzak, bere hamargarren urteurrenean (sari nagusiaz gainera, akzesita ere ematea erabaki baitzuen epaimahaiak, deialdi horretako lanen kalitatea zela eta). Hamar urteko epea atzera begiratzeko data aproposa delakoan, sariketa honek euskal literaturari egin dion ekarria gogoratu eta horretaz gogoeta egin nahi luke artikulu honek.

Beasaingo jauregi bat da Igartza, eta hura inguratzen duen eraikin-multzoa, balio arkitektoniko handikoa. Literatura-sari baten izena ere bada Igartza, Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak antolatua, gure letren panoraman bi ezaugarri berezi dituena: beka gisa funtzionatzea, eta langintza horretan hasten ari diren idazle gazteei zuzendurik egotea. Horrela erabaki zenean apostu bat zen, zer fruitu emango zuen jakiterik ez zegoena: batetik, lan amaitua ez baizik proiektu bat saritzen delako, irabazleak gero urtebetean ondu beharko duena; bestetik, idazle zailduak ez baizik hasiberriak bakarrik aurkeztu litezkeelako, epaimahaiak, egileen berri jakin gabe, erabaki dezan.

Arriskuak arrisku, emaitza bikaina izan dela esan behar, sariaren sortzaileek imajina zezaketena baino are hobea. Lehen urtean Julen Gabiria izan zen irabazlea, artean ezer argitaratu gabe zegoen Galdakako gazte ezezaguna; beka honi esker idatzitako eleberria, berriz, *Connemara gure bibotzetan*, hamarkada osoko liburu-rik irakurrienetakoa bihurtu da, 2000n estrainei kaleratu zenetik 24 argitaraldi izan dituena.

Harrezkeroko lan irabazleak hauexek izan dira: 2001ean, Xabier Etxeberriaren

Egun denak ez dira berdin, eta akzesita Jasone Osororen *Korapiloak*; 2002an Fernando Morilloren Ortzadarra sutan; 2003an Unai Elorriagaren *Van't Hoffen ilea*; 2004koa Gabiriak irabazi zuen berriro *Han goitik itsasoa ikusten da* eleberriarekin; Asel Luzarragaren *Karonte* ateraz 2005ean, eta 2006an, berriz, Karmele Jaioren *Amaren eskuak* eta Peru Magdale-naren *Lile*, akzesit moduan; 2007koa da Uxue Alberdiren *Aulki bat ehurretan*, 2008koa Jon Martinen *Ero*, eta aurtengoa, aldiz, goian aipaturiko biak. Izenak ematen hasita, gisakoa izango da epaimahakideen berri ere jakinaraztea; idazle eskarmentudunak aritu ziren hasieran lan horretan: Joan Mari Irigoien, Andoni Egaña, Aingeru Epaltza, Xabier Mendiguren Elizegi; gero, berriz, egile gazteak eurak, aurretik sari bera jasotakoak gehienak: Julen Gabiria, Jasone Osoro, Unai Elorriaga, Karmele Jai, Xabier Etxeberria, Igor Estankona.

Errepaso arin hori aski da euskal kulturari eta idazle gazteen lanari laguntzeko sortu zen Igartza bekaren arrakasta berresteko, hiru arrazoitan oinarrituta. Lehenik, liburu on mordoxka gauzatu ahal izan da hari esker; bigarrenik, idazle berri askori lagundu dio letren plazan lehenengoz agertzen edo bere bidea sendotzen; hirugarrenik, Igartza ez da izan eragile bakarra baina bai inportantea, idazle gazteek gure gizartean lehen ez bezalako pisua eta estimazioa lortzeko: garai batean argitaletxe batzuek beldur handia izaten zuten idazle gazteen lanak kaleratzeko, bazterturik geldituko zirelakoan, eta gaur badirudi haiexen bila dihardutela; era berean, komunikabide guztiak dabilta sinadura gazte horien atzetik, beren hedabideari kalitatea eta berritasuna ez ezik, lustrea eta erakargarritasuna ere erantsi nahian.

Ariketa historiko bat egitea errazagoa da noski etorkizuna igartzea baino. Nobelatik ipuinetarako joera ikus liteke orain arteko ibilbidean; baita emakumezko idazleak hartuz doazen protagonismo gero eta handiagoa ere; geroak nondik joko duen esaterik ez dago ordea. Hamaikagarren deialdiak badu irabazlea, Eider Rodriguez, eta okerrik ez dela haren liburu bat izango dugu kalean urtebete barru; hamaikagarren deialdia oraintxe abiatzen da, baldintzak betetzen dituen idazle ororentzat zabalik (35 urte baino gehiago ez izatea, ezta bi liburu baino gehiago argitaraturik). Beste hamarkada distiratsu bat etorriko ote da, oraindik ezagutzen ez ditugun idazleek osatua? Hala bedi!

*Igartza ez da izan eragile bakarra
baina bai inportantea,
idazle gazteek gure gizartean
lehen ez bezalako pisua
eta estimazioa lortzeko.*

Hondakinen euskal legearen alde, errausketarik ez!

Goierriin ere sinadura bilketa - 30.000 baietz!

Errausketaren aurkako Gipuzkoako koordinadorak errausketarik gabeko euskal legea aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean, Herri Eki-
men legegilearen bidez:

Seguruena, badakizu nortzuk garen. Gure talde-
ek urteak eta urteak dar-
matzate zaborren errauske-
taren aurka lan egiten, ez
delako metodo egokiena,
inolaz ere, gure erabili eta
botatzeko gizartean gero
eta kezkarriagoa den ara-
zoa konpontzeko.

Urteotan, legearen eta
arrazoiaren bidez egiaztatu
dugu administrazioek eza-
rritako proposamenak zu-
zenak ez zirela, ingurumen
osasungarri eta iraunkorra-
goaren aldeko borrokan
oso ondo oinarritutako ar-
gudioak genituela. Helegi-
teak irabazi ditugu. Erraus-
tegia azken inposaketa izat-
eko aurrera eramandako
prozesu guztiak jarri ditugu
kolokan. Kokagune ugari
ezeztatzera behartu diegu.
Materia organikoaren bilke-
ta abian jartzera behartu di-
tugu. Guri esker, asmo han-
diagoko politikak sustatu
behar izan dituzte birzikla-
penaren eta berrerabilpena-
ren arloan... Horrelako lor-
pen asko eta asko zure la-
guntzari esker erdietsi ahal
izan ditugu. Bakarrik, ez gi-
nen hain urrun iritsiko.



Lege hau Eusko Legebil-
tzarrera eramateko 30.000
sinadura behar dira. Hor-
regatik Goierriko biztanle
guztiak Ordiziako Goierri-
ko Baratza dendan dago-
en agiria sinatzera gonbi-
datzen ditugu.
Informazio gehiago:
www.errausketarikez.org

Orain, ordea, inoiz ez
bezalako proposamena aur-
kezten dizugu, eta asmo
handikoa da erabat. Hogeita
bost urteko ezgaitasun
politikoaren ondoren, herri-
tarren elkarteok Zaborrei
buruzko Lege Proiektua
egin dugu, lege-hutsune
handia estaltzeko, horren
ondorioz ezin izan delako
aspalditik sortutako arazo
era antolatu eta orokorrean
konpondu. Proposamen
horretan, gainera, hondaki-
nen errausketa erabat gai-
tuzten da bukaerako irten-
bide moduan, iraunkorra ez
delako; aitzitik, arazo berri
eta arriskutsuagoak sortzen
ditu.

***Hondakinen euskal legearen
aldeko sinadura bilketa
Goierriin ere bai.***

Legearen edukiaren
ideia garrantzitsuenak ho-
nako hauek dira:

- ✘ Euskadiko Autonomia Er-
kidegoan, hondakin ho-
rien ustiapena ez da ino-
laz ere errausketa izan-
go.
 - ✘ Udal-hondakinen gaika-
ko bilketa intentsiboaren
bidez: zaborreko osagai
birziklagarri guztiak be-
rreskuratzea du helburu.
 - ✘ Udal-hondakinen berres-
kurapena eta birziklapena
sustatzeko asmoz, au-
tonomia-erkidegoko
udalerrri guztiek gaikako
bilketa intentsiboa ezarri
beharko dute udal-hon-
dakinak kudeatzeko zer-
bitzuan.
 - ✘ Udal-hondakinen gaika-
ko bilketa derrigorrean
ezarri behar da konpost
bihurtzeko hondakin or-
ganikoen bilketa-zerbit-
tzu bereziarekin: etxe-
ko materia organikoaren on-
dorioz sortutakoak eta
sorrera-gune handiak di-
ren azoka, azalera handi,
ostalaritza-zentro, cate-
ring-enpresa, ikastoletan
sortzen direnak....
 - ✘ Hondakinen gaikako bil-
keta intentsiboa hobetze-
ko, atez ateko bilketa
(AAB) jarri behar da
abian. Horrela, kopuru
handiagoko eta kalitate
handiagokoa bildu ahal
izango da.
- Orain, zure sinadura be-
har dugu, aurrera egiteko.
Isilik geratuko al zara?
*Errausketaren aurkako
Gipuzkoako koordinadora*

JAKIN BEHARREKOAK

Kanbodiako basoak az-
keneko 30 urte hauetan
herrialdeko azaleraren
%70 izatetik %30 jaitsi dira,
Europako eta Amerikako
Estatu Batuetarako altza-
riak egiteko.

Animalien klonazioari

Ez. Europar parlamen-
tuak animalien klonazioa
elikadurarako debekua es-
katzen duen erabakia har-
tu du. Giza elikadurarako
animalia klonatuen eta be-
re eratorrien inportazioak
ere. Amerikako Estatu Ba-
tuetan eta beste herrialde
batzuetan klonatzen diren
txerri azienda eta behi-
azienda askotan forma-
anormaltasun larriekin
jaiotzen dira.

**“El Progreso puede ma-
tar: como el desarrollo
impuesto sobre pueblos
indigenas destruye su
salud”** txostenaren ondo-
ria. Survival taldeak sala-
tu duenez ustezko aurrera-
penak ondorio larriak da-
karzkie tribu indigenei.
Hiesa, loditasuna, diabete-
sa, alkohola, drogak, bu-
ru-hiltze eta gosea dira au-
rrerapenak ekartzen dituen
“izurriteak” eta tribu indi-
genak kinka larriari jartzen
dituenak. Esate baterako,
Yanomamiak ez daude au-
rrerapenaren aurka baina
berariet aukeratu nahi du-
te nola egin, ez kanpotar-
rak behartu. Ez dute me-
ategietako enpresak be-
raien ohiana suntsitzea
nahi, armak, gaixotasunak,
alkohola eta prostituzioa
ere ez, noski.
www.survival.es

Denetik (XV)

Maizpide
euskaltegia

Ez dira gutxi gure belarriek kalean, etxean, eskolan... entzun behar izaten dituzten hitz, esamolde, egitura traketsak. Baina azkenaldi honetan badira batzuk benetako mina egiten dutenak, orain dela hamar bat urte pentsaezinak zirenak, eta batez ere gaurko haurrek zein nerabeek erabiltzen dituztenak (hitzetik hortzera, gainera!).

Batzuen jatorria gaztelaniarekiko menpekotasunean dago; beste batzuetan, aldiz, ez dago jakiterik "nola demonstre" sortu den. Zuen jakinmina piztea lortu badugu, erreparatu ondorengo bitxikeriei...

"Si" esan diot!

Zeinek ez du izenburuko trakeskeria egunen batean entzun? Inguruko baserrietan eta gure aitona-amonen ahotan santa sekula ez, baina... hainbat gaztetxoren ahotan? Hamaika aldiz, zoritxarrez!

✗ Si gaur goizean esan diot! (*oker*)

✗ Ez kezkatu, si oso lasai dago! (*oker*)

Erabil ditzagun betiko forma txukunak, aizue, gure euskararen kalitatearen onerako izango da eta!

✓ Gaur goizean esan diot eta! (*zuzen*)

✓ Ez kezkatu, oso lasai dago eta! (*zuzen*)

Badakik zergatik jarriko diadan txertoa? Bada, maite haudalako, "gorri"! Ikusiko duk aurtengo neguan nola ez haizen gaixotzen... eta nolako katemeak inguratzen zaizkian!

Adarra jotzen, ala? Horren beharrik gabe "ligatzen" dut eta!



Gorri katarra, nagusiari zintzo entzuten

"Ze ba jun zea?"

Erne, forma bitxi hau ere uste baino hedatuago dago-eta!

✗ "Ze ba" esan didazu hori? (*oker*)

✗ "Ze ba" joan zara? (*oker*)

Horrela erabili beharrean:

✓ Zergatik esan didazu hori? (*zuzen*)

✓ Zergatik joan zara? (*zuzen*)

"Zergatik ez det gogoik!"

Aspaldiko akatsa da erantzuteko garaian "zergatik" hori erabiltzea.

✗ -Zergatik joan zara kontzertura?

-Zergatik bai! (*oker*)

✗ -Zergatik ez zara eskolara joan?

-Zergatik ez nuen nahi! (*oker*)

Esan beharrik ere ez dago, gaztelaniaren eraginez erabiltzen dugun forma trakets horren ordez, euskaraz **"-(e)lako"** erabiliko dugula:

✓ -Zergatik joan zara kontzertura?

-Hargatik (*zuzen*). Oharra: kontuan hartu "aatik" ahoskatzen dugula!

✓ -Zergatik ez zara eskolara joan?

-Nahi ez nuelako! (*zuzen*)

"Ilea hartzen"

Esamoldeei dagokienez ere, asko dira gaztelaniaren kalkoak, baina bat nabarmentzekotan, maiz entzuten dugun haurre aukeratuko genuke:

✗ Niri ilea hartzen, ala? (*oker*)

Goiko horren ordez beste hauek erabiliko bagenitu, askoz hobeto!

✓ Niri adarra jotzen, ala? (*zuzen*)

✓ Niri harpa jotzen, ala? (*zuzen*)

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Hi, ez hadi harpa jotzera etorri, bestela...
2. Zergatik esan nion hori? Bada, besterik merezi ez zuelako!
3. Saia gaitezen euskararekin hain zabarrak ez izaten, benetan merezi du eta!
4. Ez, ez dut ikusi. Zer, bada?

OHARRA: gaurko esaldi guztiak txukunak baino txukunagoak dira! Ea kalean ere horrela erabiltzen ditugun!



kutxa

eragin
eta
aldatu



Dani Maestu

Aintzane Ezenarro

Mikel Basabe

www.aralar.net

bozkatu



◀ ezkerreko **alternatiba** abertzalea aralar

Goierritarra



GOIERRIKO

hitza



Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

Goierritarra 27 euro Egin bat aukeratutako kaxan **GOIERRIKO hitza** 67 euro

Goierritarra + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidalai txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**



Soldaduskaren aurkako mugimenduak 20 urte
Irabazitako borrokaren kronika

Ramon Lizarragak eta Aitor Mendizabalek, Goierriko hainbat eta hainbat gaztek bezala, soldadutzari ez eta ordezeko gizarte zerbitzuari ez esan zieten duela 15 bat urte. Desobediencia zibilean oinarritutako mugimendu honek, neurri batean, derrigorrezko sol-

daduskarekin amaitzen lagundu zuen. Beraien borrokari esker, gaur egungo gazteek, ez daukate, derrigorrean, Espainiako armada zerbitzatu beharrik. Soldaduska kontuez hitz egin beharrean, intsumiso borrokaz aritu gara bi beasaindarrek, tartean, baita kartzelaldiaz ere.



aulia
 TOLARE
 SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
 Aulia-enea
 LEGORRETA

ZAHARRA • BERRI
 IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA

A. Almeida
 943 180 372
 651 700 439
 aiakoerrota@terra.es
 ATAUN



Eraikuntzak
 Gremioen koordinaketa
 Erreforma orokorrak
 Teilatuak

Otsailaren 20an bete da intsumisioaren 20. urteurrena. 1989ko otsailaren 20an, Bilboko Gobernu Militarren aurrean, lehendabiziko intsumisioak aurkeztu ziren. Soldaduskari ez esatearekin batera, 1984. urtean, Espainiako Legebiltzarrak onartu zuen Kontzientzia Eragozpenaren Legeak ezarri zuen Ordezko Gizarte Zerbitzuari ere ezetz esaten zieten. Urtarrilean soldaduskara joan behar ziren gazteak ziren. Handik aurrera, hilero aurkezten ziren intsumisioak. Orduan hasi zen intsumisio mugimendua.

Hala ere, intsumisio mugimenduaren aurretik, kontzientzia eragozleak zeuden. Jehovako lekukoak izan ziren armadari ezetz esaten hasi zirenak, kontzientzia arazoak argudiatuta. Laster hasi ziren kontzientzia eragozle politikokak: kontzientzia arazoez aparte, armadaren instituzioa kritikatzeko zutenak.

23 eta 18 urte zituzten garai hartan Ramon Lizarragak eta Aitor Mendizabalek. Soldadutzara joateko adin bete-betean zeuden. Bilboko intsumisioen bidetara jarraituz, beraiek ere intsumisio izatea erabaki zuten.

Hasiera batean, norbera bere kontura ibili bazen ere, pixkanaka, taldeetan elkartzen hasi ziren. Goierriin esate baterako, Goierriko Objektore taldea zegoen eta Ordiziako Barrenako lokal bat zuten biltzeko lekua. Informazioa zabaltzen lan asko egin zuen taldeak. Borroka hura ondo gogoan dute Lizarragak eta Mendizabalek. Urte haien errepa-soa egin digute.

1989ko otsailaren 20a hartzen da Intsumisio mugimenduaren hasieratzat. Intsumisioen aurretik, kontzientzia eragozleak zeuden. Zein giro zegoen?

Ramon Lizarraga: Bai hasieratzat, Bilboko, Gobernu militarren aurrean intsu-



Soldadutzatik libratzeko komerriak

“Denborarekin, jakin izan dugu jendea nola libratu den soldadutzatik. Herriko apaizak edo medikuak paperen bat egin ziola, Burgosa joan zela... Azpeitiko militar batengana jende asko joaten omen zen... Lehen garai batean, soldadutzako kontuak kontatzen ziren bezala, nola libratu zenaren bitxikeriak kontatzen dira. Jendea bere kontura aritu zen eta ez zen taldean antolatzeko beharrik ikusten”, diote Mendizabalek eta Lizarragak.

misoen lehenengo agerpena izan zen. Aurretik ere Objektio edo Eragozpen legea zegoen, 1984an onartu zen Inuxente egunean, orain dela 25 urte. Soldadutzaren ordezkoa bezala zen hasieran baina gerora zigor bat bezala zen, hilabete gehiago jartzen baitziren. Gurutze Gorria edo erakundeeta egiten zen ordezko zerbitzua. Gobernuak gizarteari zerbitzu batzuk ematera behartu nahi zituen soldaduska egiteari uko egin ziotenak.

Aitor Mendizabal: Soldadutza 12 hilabete zen eta ordezko zerbitzua, 18 hilabete.

Lizarraga: Lege aldaketaz aparte, NATOren erreferenduma izan zen, Golkoko gerra, Balkanetako gerra... gizartea mugituarazi eta kontzientziatu zuten gauzak gertatu ziren.

Bestetik, 1989an Eragozpen Legea martxan jarri zuten. Jendea erabaki beharrean egon zen eta guk intsumisioa egitea erabaki genuen, bai soldadutzari eta

bai ordezko zerbitzu horri. Estrategia horri heltzea erabaki zen.

20 urte dira baina borroka sei-zazpi urtean izan zen puntu gorena, 1989tik 1996ra izango zen.

Intsumisio eta eragozle aukera horretan, zatiketarik izan al zen?

Lizarraga: 1990an antolatu nahian ibili ziren, ea ondo ateratzen zitzairen. Ordezko Zerbitzuak hori markatu zuten. Soldadutza edo beste hau jarri zuten aukeran. Baina ez bat eta ez bestea. Bata bahiketa militarra zen, eta bestea, ordezko zentro militar bat zen. Azken batean, zigor bat zen, soldadutza ez egiteagatik.

Jendeak bide ezberdinak aukeratu zituen baina. Batzuk intsumisio egin aurretik, ordezko zerbitzua egiteko apuntatzen ziren. Eta deitzen badidate, intsumisio egingo naiz. Baina zailtasunak zituzten eta zor-

Soldadutza bahiketa militarra zen, eta ordezko zerbitzua, ordezko zentro militar bat. Azken batean, zigor bat zen, soldadutza ez egiteagatik.

Kronologia

✓ **1876.** Bigarren Karlistaldia amaituta, derrigorrezko soldaduska ezarri zuen Espainiak Hego Euskal Herrian.

✓ **1971.** Pepe Beuntza kontzientzia eragozlea epaitu zuten.

✓ **1982.** NATO n sartu zen Espainia. Lau urte geroago erreferenduma egin zen, erabakia berresteko.

✓ **1984.** Espainiako Legebiltzarrak Kontzientzia Eragozpenaren Legea onartu zuen, Ordezko Gizarte Zerbitzua abian jarri.

✓ **1989.** Otsailaren 20an, lehendabiziko intsumisioak aurkeztu ziren, Bilboko Gobernu Militarren aurrean.

✓ **1993.** Eusko Legebiltzarrak intsumisioa zigorgabetzeko eskatu zuen.

✓ **1993.** Intsumisio presoa planto egiten hasi zitzaizkion hirugarren graduari.

✓ **1996.** Eudima Euskal Udalerri Intsumisioen Mankomunitatea sortu zen. Bestetik intsumisioak inhabilitatzen hasi ziren.

✓ **2001.** Derrigorrezko soldaduska amaitu zen.



te pixka batekin epea pasatzen zen eta libratu egiten zen. Objeto asko izan zen.

Baina ondo bideratu zen, azkenean denok egoera berdinean geundelako eta erantzun berdina eman beharko genuelako. Denon lema bat zen, soldadutzari ez. 1993an, 10 urteko inhabilitazioak ere sartu zituzten, isunak... ez zen bakarrik kartzela, zenbait leku eta arlotan lanik ez izatea baizik. Zigor oso ezberdinak izan ziren, banatu nahian. GOTera denetik etortzen zen: bat intsumisioa, besteren bat zitazioarekin, bestea prorrogarekin zegoena... denek zeukaten

zerbait komunean. Azkenean denak epaitegietatik pasatzen ginen. Hori izan zen denok bildu gintuena. Errepresio horri buelta eman genion, bestela oso-oso zaila izango zen talde antolatubat egitea.

Zer suposatzen zuen intsumisio izateak?

Lizarraga: Hasieran denetik jasan behar izan genuen. Epaketak, atxiloketak... beraiek ere saiatzen ziren intsumisioak banatzen. Batzuei bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra jartzen zieten, beste batzuei urtebetekoa, beste batzuei 18 hilabete... Hasieran, soldadutzaren intsumisio zirenei, gerra kontseilua

egiten zitzaien. Militarrei zegokien gaia zen. Gero aldatzen joan zen Kode Zibile-ra.

Mendizabal: Ataungo Ipi izan zen lehenengo goierritarra, gerra kontseilua izan zuena. Militarren Zigor Kodeak urtebeteko kartzela zigorra ezartzen zien intsumisioei; Kode Zibilak, berriz, bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra.

Lizarraga: 1990. hamarkadan, orduan hasi ziren epaketak kartzela zigorrak. 1992an Nafarroan hasi ziren.

Mendizabal: Nafarroa izan zen proba-bankua. Iruñeko kartzela intsumisioz beteta egon zen. 1993. urtean,

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

IÑAKI ARIN
aseguruak



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

Ideia
orokorra zen:
jendeak ez zuela
soldadutzara
joan nahi.

ehun bat intsumiso egongo ziren.

Lizarraga: Baina gaizki aterra zitzaien. Irudimen handiko erantzunak ematen ziren. 1994an Intsumiso eguna ospatu zen Oiartzunen. Intsumiso eguna baino hilabete lehenago, Iruñeako kartzelatik 8 intsumiso dispersatu egin zituzten. Oso borroka gogorra izan zen, jende askorentzat sakrifizio handia izan zen. Beraiek saiatu ziren legeak aldatzen, batzuk amnistiatzeko, azken batean, intsumisio mugimendua zatitzen. 1994tik 1999ra ospatu ziren Intsumiso egunak. Lehenengoan, Oiartzunen, 25.000 pertsona biltzea izugarria izan zen.

Beraiek zenbat eta gehiago eman, jendeak neurri bereko erantzuna ematen zuen. Iruñean ikusi zuten kartzela ez zela bidea. Kontrakoa lortzen ari ziren. Jendea gero eta gehiago mobilizatzen zen. Hirugarren graduari uko ere



Zozketen aurkako borroka egunak

“Borroka eta ekintza ezberdin ugari egin ziren. 1986ra arte, tailatzea udaletxeetan egiten zen. Horri boikota ere egin zitaion. Erreterian, baskulak-eta errekarara botatzen ziren. Greba egunak, moziok, planteak... azaroan egiten zen zozketaren aurkako borroka eguna oso garrantzitsua izaten zen. Ikastetxeetan beti arrakasta handia izaten zuten. Zozketa garaian, azaroan, borroka eguna antolatzen zen eskoletan. Azkeneko zozketa, 2000. urteko azaroaren 8an izan zen”.

egingo zieten batzuk eta planteak egin zen. Kartzelan giro txarra jartzen zuten.

Erantzun soziala handia zen, jendea gurekin zegoen.

Goierriin zenbat intsumiso izan zen daturik ba al daukazue?

Lizarraga: Intsumisioen datuak ematea zaila da, bakoitza bere aldetik ere ibili zelako. Oso zaila zen jakitea:

300 bat intsumiso egon ziren, 50 bat izango ziren epaituak... Estatu osoan, 22.000 intsumiso egon zitezkeela esan daiteke, Euskal Herrian 15.000 izango ziren. Horrek esan nahi du Euskal Herrian arrazoi gehiago zegoela. Ez zitzaiona armadari bakarrik ez esaten, espainiar eta frantziar armadari ez baizik.

Mendizabal: Hasieran jen-

dea bakoitza bere aldetik aritu zen. Gero, aurkezteko karta iristen zenean, zein egunetan zein koarteletan aurkeztu behar zen esaten zuena, orduan hasten zen mugimendua.

Lizarraga: Batzuk kontzientzia gehiago zutenek, borroka orokorra bezala ikusten zuten, beste batzuek, bakoitzak bere interesatik.



zuhaizki
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

xetai
nafarroa etorbidea 1
beasain gipuzkoa
www.xetai.net





Beasaingo Nafarroa Etorbidean zegoen Gurutze Gorriaren egoitza berdez margotu zuten zenbait intsumisok.

Gurutze Gorria salatzekeo kanpaina

Kontzientzia Eragozleek, batez ere Gurutze Gorrian egiten zuten Ordezko Gizarte Zerbitzua. Gurutze Gorriaren jarrera salatzekeo, ekintza bat baino gehiago egin zen Goierrin. Bat adibidez, argazkian ikus litekeena: Beasaingo Nafarroa Etorbideko Gurutze Gorriaren egoitza, berde militarrez margotu zuten zenbait intsumisok.

Dena den, Ramon Lizarragak beste ekintza bat azpimarratu eta nabarmendu du. "Gipuzkoako Gurutze Gorriaren batzarra egin zen Beasaingo udaletxean eta bertara sartu eta eten egin genuen. Militarrez jantzita sartu ginen. Aurpegiratu egin genien, txantaia batetaz aprobetxatzen ari zela Gobernu eta beraien erakundea bera kalteztzen zela. Beraiek ere onartzen zuten txantaia egiten ari zitzaizela. Gero eta gehiago behartzen joan zitzaizkien, beti ere dirulaguntzak ukatuko zizkiela mehatxatuz. DYAk ez zuen eragozlerik onartzen. Gurutze Gorriak ez zeukan gaitasunik objetore guztiak hartzeko. Eudiman zeuden Udalek ere, garbi esaten zuten ez zutela objetorerik hartuko", gogoratu du Ramon Lizarragak.

Gurutze Gorriak ez zeukan gaitasunik objetore guztiak hartzeko.

Intsumisioak nola joan zireneten elkartzen?

Lizarraga: Ni prorroga eskatzen hasi nintzen. Gero eskutitz bat bidali nien esanez, ni ez nintzela joango eta lasai egoteko. Gero hasi nintzen harremanetan, koordinatzen, eta talde lana egiten. Goierrin, GOT zegoen, Goierriko Objektore taldea. 1986-87an sortuko zen. Legea prestatzen ari zen bitartean.

Mendizabal: Nik hasiera batean ez nekien GOT zegoenik ere. Donostiako egoitzara joan nintzen, Loiolara aurkeztu behar bainuen halako egun batean. GOTekoek deitu zidaten, beraiek itxura denez bazeukaten nire epaiketaren berri. Ostegun Gizen batean neukan epaiketa.

Intsumisioa mugimenduaren garaipenaz hitz egin al daiteke?

Lizarraga: Ideia orokorra zen, jendeak ez zuela soldadutzara joan nahi. Gazteen artean kontzientzia handia zegoen hasiera-hasieratik. Azaroko zozketa oso latza izaten zen. Nora tokatzen zen... Soldadutza ez

zen 18 urterekin hasten zen zerbait. 17 urterekin alista-mendua, tailatzea... 33 urtera arte erreserban egoten zinen, nahiz eta soldadutza bukatuta eduki. 16 urte. Garaipena izan zen. Pozgarria, bere bizitzan ez duelako bahiketarik jasango.

Mendizabal: Azkenean, bilatzen zen helburua lortu zen. Nahiz eta mugimenduak aurrera jarraitu, gastu militarren aurka eta abar, soldadutzara ez joatea behintzat lortu genuen.

Politikoki, zein jarraipen izan zuen intsumisioak?

Lizarraga: Batzuei kostatu zitzaien ulertzea eta beste batzuei gehiago. Gehienak etekin politikoaren bila aritu ziren. Hasieran ez zegoen intsumisioaren aldeko jarrera garbi bat. Hasierako mezu aldekoena, 'Soldadutza honi ez' izan zen. Baina beste batzuk, beti legearen alde. Intsumisioaren aldekoak zirela baina legearen barruan. Hori ezinezkoa zen. Apurtu beharra zegoen. Intsumisioa beste filosofia bat zen, legearekin gutzit bat ez zetorrena.

Mendizabal: Aurkeztzen genuen mozio bakoitzeko, kontramozioak aurkeztzen zituzten. HBk bakarrik egingo zuen gure alde. Zerbait onartzen zen, baina beti beraiena. Gero pixkanaka joan ziren hauteskunde programetan jartzen. 1996an PPEk hauteskundeak irabazi zituenean, CIUekin batera, esan zuen 2003rako armada profesionala izango zela.

Lizarraga: Eudima (Euskal udal intsumituen mankomunitatea) ere

Gaur egungo gazteek, zuen borrokari esker, ez daukate soldaduskara joan beharrik. Zer esango zeniekete?

Lizarraga: Nahiz eta garrantzia handirik ez zaion eman, nik uste dut oso lan polita izan dela. Posible dela zerbait aldatzea borroka eginez gero.



Aitor Mendizabal, Joseba Mintegi eta Albitos. Kartzelan egon ziren biru goierritar intsumiso.

2 urte, 4 hilabete eta egun bat

2-4-1. Ondo barneratutako hiru zenbaki ziren intsumisoentzat. Bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra izaten baitzen Kode Zibilak intsumisoei ezarritako zigorra. Goierritar intsumiso bat baino gehiago egon zen preso. Horietariko bat, Aitor Mendizabal arriarandarra izan zen. 24 urte zituen garai hartan Aitorrek. 2 urte, lau hilabete eta egun 1eko zigorra zuen Aitor Mendizabalek 1995eko uztailaren 2an kartzelan sartu eta 1997ko apirilaren 1ean bukatu zuen kartzelaldia. Honela gogoratzen ditu orduko bizipenak:

“Epaiketak ezberdinak izan ziren, aldatzen joan ziren. Ni Mikel Lasaren epaiketan izan nintzen eta leku-koekin-eta izan zen. Ordu eta erdi, bi orduko epaiketa izan zen. Nirea, bost minutukoa izan zen. 1995eko Ostegun Gizena zen. Sartu, sinatu eta kalera. Epaia hilabete ingurura iritsi zen. Bilatzeko eta atxilotzeko agindu-pean berehala jarri ninduten. CAFen ekainean lanean hasi eta uztailaren 2an atxilotu ninduten. CAFera etorri ziren ertzainak bila. Komite oso-osoak lagundu ninduen kanpora. Batzarra egin zen eta batzorde osoa

akordiora iritsi zen, ni kartzelan nongoen bitartean, lana gordeko zidatela. Martutenera eraman ninduten. Ni astearte batean atxilotu ninduten eta Jon Olano beasaindarra, larunbatean. Arriarango festak ziren. Bilatu eta atxilotzeko zeuden intsumisioak ekintza publiko bat egiten zuten, atxilotuak izateko. Joseba Mintegiren kasuan, PSOeren egoitzan kateatu ziren baina libre utzi zuten. Handik egun batzutura atxilotu zuten Ordiziako geltokian, lanera zihoala. Guri ez ziguten denborarik eman, zerbait prestatzen ari ginen baina lehenago atxilotu gintuzten.

Nik barruan, kartzelatik atera gabe, 15 egun egin nituen. Hirugarren gradua lortu nuenean, kartzelara lo egitera joaten nintzen. Horretarako, ikasten ari zinela edo lanean ari zinela erakutsi behar zenuen. Gaueko 10etan sartu eta goizeko 6etan ateratzen nintzen.

1996ko Inuxente egunean, Loiolako koartelaren aurreko zubian, parodia bat egin genuen, militarrez jantzita. Kateatu egin behar ginen eta kateak ahaztu zitzaizkigun”, adierazi digu irriparez.

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

izal ☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL
PINTURA eta PAPERGINTZA

biok kudeaketa
fiskala
zerbitzuak kontablea
merkatala
Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12 laborala



Latinoamerikako emakumeen hitza

Latinoamerikako elkarteko emakumeek etxeko atak ireki dizkigute. Mariarenera joan gara, Latinoamerikako ohiturari jarraituz. Elkarte sortzeko urratsak egiten ari dira eta Goiekik bulegoa utzi badiete ere, elkarte sortu bitartean, etxeetan elkartzen dira. Dituzten

arazoei buruz hitz egin digute. Aldi berean, Beasaingo Asmube emakumeen elkartearekin elkarlanean Martxoaren 8ko Beasaingo ekitaldietan parte hartuko dutela ere kontatu digute. Argi daukate, zer erakutsi eta zer ikasi asko dutela, beraien herrialde berrian.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko. 649 RPS. 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


A SE PLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MEREANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA


www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Latinoamerikarren elkarteak sortzen ari dira Goierrin bizi diren hainbat eta hainbat Latinoamerikako goierritar berri. "Momentuan 25 bat lagun gara, baina elkartearen paperen kontuarekin bukatzen dugunean, gehiago zabalduko dugu", adierazi digute. Goiekin gela bat badu elkarteak. Bitartean, Mariaren etxean elkartzen dira, Latinoamerikan bezala.

Goierrira bizitzera etorri diren latinoamerikarren topaleku izatea nahi du elkarteak, "bakoitzak bere esperientziak kontatuz, elkarri laguntzeko. Adibidez, paperen kasuan, arazoa ez dugu konponduko bai baina bideratzen lagunduko dugu. Askotan beldurrarekin hartzen da paperen gaia baina hortik pasatu garenak, zer egin dezakeen aholkatu diezaiekegu, ze laguntza dauden, zein ikastaro dauden...".

Beste helburu bat ere badu elkarteak: beraiek hemen integratzearekin batera, goierritarrei beraien kulturaren berri zabaltzea. "Ez da kontua gu bakarrik hemen elkartu eta ixtea. Bizi garen gizartean parte hartzen saiatu behar gara. Euskal kultura ezagutzen saiatu behar gara eta guk geure kultura erakutsi euskal herritarrei. Hemen bizi baldin bagara, ezagutu egin behar gara. Itxita, ez gara ezagutu behar". Elkartearen eratu ahala, gauzak antolatzen hasiko gara.

Mariaren etxean

Dena den, lantxoak egiten hasita daude. Mariaren etxera gonbitea egin digute eta pozik onartu dugu. Emakumezko koadrila bat dugu zain: Thelma (Honduras), Milenca (Bolivia), Isabel (Honduras), Nila (Bolivia), Brenda (Honduras), Maria (Argentina), Anne (Kuba) eta Nelly (Kolonbia). Gaur, emakumezkoen bilera da, Martxoaren 8ari



Martxoak 8ko ekintzak eta afaria

Gure gizartean integratzea dute helburu latinoamerikarrek eta Martxoaren 8an, Nazioarteko Emakume Langileen eguna aitzakia ona izango dute horretarako. "Asmube elkartearen gonbidapena daukagu, Martxoaren 8ko Emakumezkoen eguneko ekintzetan parte hartzeko. Integratu eta ezagutu, eta gauza asko komunean baititugu. Beraiekin hitz egin da, konturatzen gara, gutxigorabehera, antzeko arazoak ditugula", adierazi digu Mariak. Asmubek antolatutako ekintzetan parte hartuko dute. "Sagardotegiren batera joango gara, autobusean".

begira, Beasaingo Asmube emakume elkartekoekin elkarlanean arituko baitira.

Eskuzabal hartu gaituzte: kafea, gailetak, freskagarriak, matea... "Latinoamerikan ohitura handia dugu etxeetan elkartzeko. Kafea hartu, kontuak esan...", adierazi digute pozik.

Gehienek, 2 eta 5 urte bitartean daramate Goierrin. Etorri berriak direnak ere badaude. "Elkarri laguntzeko helburuz elkartzen gara. Gaur adibidez, dauzkagun hainbat arazoei irtenbidea nola eman diezaiokegun aztertzen aritu gara. Hemengo emakumeek bezala, baina beharbada guk gehiago ditugu. Bakoitzak bere esperientzia kontatzen du. Lana, etxebizitza, paperak, ikasketak...", adierazi digute. "Askotan, taldeko terapia bezala ere izaten da", gaineratu dute irribarrez.

Lana, etxebizitza, paperak... izaten dira arazorik ohikoena. "Norbaitek lanik gabe baldin badago eta norbaitek jakiten badu lanposturen baten berri, esan...". Trukeak ere egiten dituzte. "Argentinako neska batek entrenatu egiten nau eta nik masajeak ematen dizkiot. Hemengo titulurik ez daukagu, baina hangoa bai. Bat irakaslea bada, haurrei lagundu...", adierazi digute.

Bakarrik dauden emakumeak

Arazoetaz hitz egiten hasita, batez ere, bakarrik dauden emakumezkoak aipatu dituzte. "Lan arazo handiak dituzte. jazarpen handia ere bai. Emakumea beharrean dagoelako, askotan, desesperatuta, horrelako arazoak sortzen dira. Batez ere bakarrik dauden emakumeek sufritzen dute hori. Gogo-

rena hori da. Gainerakoak, hemengo emakumeek dituzten arazo berdintsuak ditugu; ez gara hain ezberdinak", azpimarratu dute.

Tratu txarrak

Tratu txarren gaia ere atera da. "Latinoamerikar askok daukagun arazoa da, gizonnezkoak oso matxistak dira, eta emakumezkoek asko kostatzen zaie banatzea, gizonnezkoek ez dute onartzen".

Taldean, tratu txarrak jasateko dituen emakumezko bat ere badago. Bere testigantza kontatu digu: "nire kasuan, senarra ez zen latino. Arazo ekonomikorik ez nuen senarrarekin, baina tratu txarrak bai. Duela urtebetetik bakarrik nago. Borrokan. Abenduaren 31tik langabezian nago. Ez daukat senarrik eta borroka egin beharra daukat, baina

ez daukat tratu txarren eta erasoen arazorik”, adierazi du. “Taberna batean lan egiten nuen, jende guztiak ezagutzen nau eta kalean izugarrizko iskanbilak sortzen zituen. Tratu txarrak, hitzezkoak eta fisikoak. Bel-durgarria izan da”, gaineratu du.

Bere senarraren aurkako salaketa jarri zuen. “Babes-tutako biktima izan naiz. Babesa izan dut, etxetik lanera eta lanetik etxera joateko. Laguntzarekin gainditu dut. Tratamendu psikologikoan egon naiz”.

Guztiek ere argi daukate, hemen emakumeak, laguntza eta babes handia daukala, “Latinoamerikan ez bezala. Horregatik emakume asko hona etortzen dira, hemen aukera gehiago baitute banatzeko. Babes gehiago dute. Gure herrian, gehiegi eusten da”, diote.

Matxismo kulturari egotzi diote errua. “Heziketak zerikusi handia dauka. Inkonzienteki, gizonaren esklabu izateko hezi gaituzte. Horregatik aguantatzen dugu hainbeste. Niri inork ez dit hatzik gainean jarriko. Nik beti esaten dut, gizonetzko batek emakumezko bati behin, eskua gainean jartzen badio, seguru hiru, lau, bost... aldiz egingo diola”.

Emakumezko asko bakarrik etortzen dira, seme-alabak eta gizonak beraien herrialdean utzita. “Obarioak jartzen dituena emakumezkoa izaten da”, adierazi dute.

Lana

Bizimodu hobea baten bila etortzen dira Europara. Dena den, helburua betetzea ez da askotan erraza izaten. “Paperik ez dagoeanean, baldintza txarrak izaten dira. Adibidez: interna bezala, 400 euro. Eta gutxiago ere bai. Horrelako kasu asko daude”.

Geriatrico laguntzailerak, eguneko zentroetan,



“Segurtasun handia dago hemen. Lasaiago bizi gara. Hemen kalean mugikorretik bizketan zoaz, eta inork ez dizu telefonoa lapurtuko. Inoiz ez zaituzte golpatuko, mugikor bat lapurtzeko”, diote latinoamerikarrek.

ostalaritzan, etxeko lanetan, adinekoak zaintzen... egiten dute batez ere lana. “Hala ere, ikasketekin hobetu dezakegu”. Ikastearen garrantzia azpimarratu dute. Taldeko bat, Donostian, Unibertsitatean, Gizarte Hezikuntza ikasketak egiten ari da. “Ikasten ari naizenean lan egiteko aukera baldin badaukat, ondo, baina aukerarik ez badaukat, orain arte lan egin dudanean jarraituko dut. Ikastaro asko subentzionatutakoak dira eta prestatu egiten zaituzte. Biharko egunerako baliagarria izango zaizu. Beste jende bat ezagutzen duzu eta errazago integratu egiten zara”.

Krisiaren eragina nabarmentzen hasi dira. Etorrin batzuk beraien herrialdeetara itzultzen hasiak dira. “Eta oraindik hasten ari gara, okerrena etortzeko dago. Mundu mailako krisia da. Krisiak denori eragiten digu. Ez gaitu Obamak salbatuko, ezta Zapaterok ere, ezta Rajoyk ezta Merkelek. Bere prozesua du eta pasatu egiten beharko gara, baina

aterako dugu”, azpimarratu dute.

Hala ere, “guk errazago eramango dugu, krisitik, baigatoz. Gutxiago edo gehiago jango dugu, beste bizimodu batera ohitura daude. Mailaz jaistera ohituta gaude, batzuetan gorago gaude eta beste batzuetan gutxiago. Badakigu egokitzen”, gaineratu dute.

Leku pribilegiatua

Batzuei gehiago eta besteei gutxiago ari zaie kostatzen gure herrialdera ohitzen. “Han, gauza on asko dauzkagu eta gauza txar asko dauzkagu. Eta hemen ere bai. Baina ez dago paradisu-rik. Dena den, Espainia mailan alderatuta, ondo gauden leku batera iritsi gara. Leku pribilegiatura etorri

gara. Ni Boliviatik etorri nintzenean, Bartzelonara joan nintzen. Baina nire helburua, Ordizia zen. Ez nekien mapan non zegoen, baina banekien iritsiko nintzela. Hau ikaragarri gustatu zitzaidan. Donostiako geltokian jaitsi nintzen, ibaira gerturatu nintzen eta Frantziako estiloko etxeak ikusi nituen... Zoragarria. Donostiaz maitemindu nintzen. Urte batzuk egin nituen han. Euskal Herria orokorrean hobea da. Orain Unibertsitatean ikasteko aukera daukat hemen eta kontratzen naiz pertsona pribilegiatua naizela. Badakit ikastea sakrifizio handia dela baina badakit ateari irekiko dizkidala. Ikasten ari naizena, niretzako da. Ondo sentitzen naiz. Dautu

Han gauza on eta gauza txar asko dauzkagu. Eta hemen ere bai. Baina ez dago paradisu-rik.

kadan urteekin, unibertsitatera joan eta neska-mutilekin egoteak bizia ematen dit. Ez naiz arrotza sentitzen ikasgelan, nahiz eta 30 urteko tartea egon”, diote.

Denbora funtsezkoa

Lagunak egiteko, gizartearen integratzeko, norberarentzat denbora izatea funtsezkoa dela diote. “Latinoamerikan gutxiago lan egiten dugu. Bizilaguna, ez dakit nor, badakit nor... etortzen dira etxera. Orduak egoten ginen hizketan. Baina hemen lan asko egin behar da. Gastu gutxiago geneukan Argentinan. Baina guratzat denbora hartu behar dugu. Latinoamerikan, lan gutxi egiten dugu, eta asko gozatu”, adierazi dute.

Dena den, “aurreko batean etxean lagun batzuk elkartu ginen eta han egon ginen batek azazkalak margotzen, besteak trentzatxoak egiten... urte askotan horrelakorik egin gabe nengoen”, dio pozik.

Aurrepausoak ematen ari dira elkartearen bidez, eta eguna eta ordua jartzeko erabakia hartu dute, “hala badakigu norbait aurkituko dugula”.

Iruñeako Kolonbiarren elkartearen berri eman du goierritar kolonbiarrak: “Iruñeako Kolonbiarren Elkartera asko joaten naiz. Garaje bat daukate eta beti dago norbait. Oso ondo antolatuta daukate”.



“Bizi garen lekura egokitu behar dugu”

Norberaren sorlekua eta familia uztea esperientzia gogorra da inondik inora ere. Eta askotan are gogorragoa, gizarte eta ohitura berrietara ohitzea eta moldatzea. Gure artean urte asko daraman arren, Euskal Herrira egokitu ez denik badago, batez ere euskaragatik. Nahiko ezkor ageri da.

Baina berehala hasi zaizkie gainerako talde lagunak gomendioak eta animoak ematen: “hemen dauden gauza onak hartu behar ditugu, baina batzuek, txarrari bakarrik begiratzen diote. Hemen hizkuntzak ikasteko aukera dago: zure alabak gaztelera ez du galduko. Euskara ikasi du, frantsesa, ingelesa ikasiko ditugu... zure alabari mundua erakusten ari zataizkio. Hemen jarri behar dugu burua”, esan dio batek.

“Onena da, bizi garen lekura egokitzea da. Eta ez amargatu. Nik filosofia hori daukadanatik ez daukat arazorik. Lagun askorik ez daukadala? Ez ditut edukiko, baina bilatzera ere ez naiz atera”, gaineratu dio besteak.

Bukatzeko, penak arintzeko trikimailua ere azaldu du batek: “Etorri berritan bai, negar asko egin nuen. Nire sentimenduak adierazteko modua aurkitu nuen: andrea oheratzen nuenean, idatzi egiten nuen, edo irakurri. Paperean idazten nituen nire penak, eta hurrengo egunean, ondo jaikitzen nintzen. Irribarrearekin jarraitu eta bizitzen jarraitu. Pixkanaka joaten zara lagun taldea egiten”.

Goierritarra
943 16 00 56
goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO hitza
943 16 00 56
goierri@goierrikohitza.info

IBAI ONDO
ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurrira
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

X A
X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK
☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 **BEASAIN**



Jose Antonio Blanco:

"Maratoian dena jokatzeko duzu, 38. kilometroan ondo egon zaitezke eta 39.ean ia korrika egin ezin duzula".

Korrika eginez gozaten du Jose Antonio Blancok. Txindoki atletismo taldeko kidea da 32 urteko ordinar hau. Gozatu gain hainbat lasterketa ere irabazi ditu. Aurten, adibidez, 'Txurik' Seguran jokatuako Euskadiko kros laburreko txapelketa irabazi du "gehiegi entrenatu gabe".

Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua Karta Sagardotegia Jatetxea Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Oskarbi Oinetakoak Nagusia 34 Tel 943 881 944 Ordizia

Oskarbi Oinetakoak Sekundino Esnacka 8 Tel 943 721 978 Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak Nagusia 34 Tel 943 884 104 Beasain

Oskarbi Oinetakoak Erdiko Kallu Tel 943 711 804 Arrasate


Eguerdiko eguzki epeletan, Altamira estadio ondoko eserleku batean egin dugu Jose Antoni Blancorekin hitzaspertua. Negu honetan egin duen euri guztiak entrenamentuetan eragingo zuela pentsa baliteke ere, horregatik ez du atzera egin ordiziar korrikalariak, "Lehenengo bost minutuetan bustitzen bazara, berdin da bost minutu edo ordubeta korrika egin", dio.

Orain kros denboraldia bukatzen ari da. Txapelketa gehienak jokatu ditu eta Espainiako txapelketak bakarrik falta zaizkio. "Baina Espainiakoetara parte hartzera bakarrik joaten gara", argitu du, "han profesionalak daude, beste maila bat dago".

Horren ondoren apirilean Rotterdameko maratonia korritzeko prestatzen ari da. Ondoren, hamar bat egun atseden hartu, maratoni erdiren batean korritu nahi du, "Donostiakoa, adibidez, maiatzan izaten da... Maiatzaren bukaeran gelditu egingo nintzateke, eta beste lasterketaren batean pentsatzen hasi. Beharbada, udazkenean, beste maratoinen bat egingo nuke". Maratoia prestatzeko bost hilabete behar izaten dira eta aurretik atseden hartu behar da, baina ez gehiegi ere, bizpahiru aste nahikoa izango ditu indarbertitzeko.

Kros denboraldia nola joan da?

Uste baino hobeto, lesionatuta egon naizelako. Abenduan eta urtarrilan, min hartuta egon nintzen. Prestakuntzan atzeratuta ibili naiz eta kros denboraldia baztertuta neukan. Baina azkenean entrenamenduetan ondo sentitu nintzen eta probatzen atera nintzen. Eta nahikoa ondo atera zait. Seguran, bigarren gelditu nintzen, marokoar batek irabazi zidan, baina Euskadiko txapelketa irabazi egin nuen. Kros motzekoa izan nuen. Kros motzekoa izan nuen, 4 kilometro. Segura-



Palmaresa

Jose Antonio Blancoren garaipenak ugari badira ere hauexek dira azken urteetako nabarmenenak. Honez gain maratoi erdian 1.07.27ko denbora egin zuen 2005ean Bonnen eta 2007an Donostiako maratoin 2.25.43koa.

2003/2004: Gipuzkoako txapeldun 5.000 metrotan.

2004/2005: Gipuzkoako kros eta kros labur txapeldun. Bonn-eko maratoi erdian lehen postua.

2005/2006: Gipuzkoako kros txapeldun. 3.000 metroko euskadiko txapeldun.

2008/2009: Euskadiko kros laburreko txapelduna.

koa. Hurrengo astean, Azpeitin, kros luzeko txapelketa jokatu zen, 12 kilometrokoa, eta bosgarren gelditu nintzen.

Lokatza dezente zegoenez, ez da hainbeste korritzen eta ez da beharrezkoa forman hain ondo egotea. Ni ere ez nengoenez hain ondo, lokatza ondo etorri zitzaidan. Oso indartsu daudenek, hainbeste lokatza ez balitz egon, gehiago korrituko lukete. Baina lokatza asko zegoenez, gutxiago korritzen da. Hanken indarrak zerikusi handia dauka,

eta ez forman hain ondo egotea.

Krosak duen berezitasuna lokatza al da?

Lokatza, eta zirkuitua ere bai. Askotan aldapa handiak jartzen dituzte. Krosa gustatzen zait.

Baina maratoiak ere egiten dituzu.

Niri krosa asko gustatzen zait. Zenbat eta lokatza gehiago egon hobeto. Errepidea ere gustatzen zait baina erabaki behar izango banu, krosa aukeratuko nuke. Pistan berriz, ia ez naiz ibiltzen.

Martxoaren 8an, Espainiako txapelketa daukagu, taldeka. Txindoki sailkatu egin da kros motzerako. Caceresen daukagu txapelketa. Hurrengo astean, Euskadiko selekzioarekin, kros luzean parte hartuko dut, Albaceten.

Apirilerako maratonia prestatzen ari naiz dagoeneko. Rotterdameko maratoin parte hartuko dut. Iaz ere parte hartu nuen. Beti saiatzen da hobetzen. Maratoin badakizu zein erritmotan aterako zaren, baina ez dakizu zein erritmotan bukatuko duzun. Maratoin dena jokatzeko duzu. 38. kilometroan ondo egon zaitzake eta 39.ean ia korrika egin ezin duzula.

Entrenamendu mota asko aldatzen al da?

Distantzia aldatzen da. Krosean ordubeteko entrenamenduetarekin nahikoa da, maratoin, ordu eta erdi, ia bi ordu. Azken batean kilometroak dira. Krosean, kilometroak azkarrago egin behar dira. Maratoin, garrantzitsuenak, erresistentzia lantzea da.

Eta psikologikoki prestatua egotea ere garrantzitsua izaten da ezta?

Bai, nahiko ondo prestatuta egon behar da. Maratoin prestakuntza asko da, baina beste asko burua. Burua ondo izan behar duzu, ahaztu eta orduari begiratu gabe, aurrera eta aurrera. 10. kilometrotik zenbat gelditzen den pentsatzen hasten bazara, gaizki zoaz.

Urtean normalean bat egiten dut, edo bi. Udazkenean, normalean, Donostiako egiten dut eta apirilean, aukeraren bat egoten bada, bat egiten dut, kasu honetan, Rotterdamekoa. Kanpora joatea gustatzen zait. Korrikaren aitzakian bidaiatu egiten dugu.

Zergatik errepikatu behar duzu Rotterdamen?

Zirkuitua oso ona da. Hain zuzen izan dezakezu. Antolakuntza onenetarikoa duena

“Gorputzak eskatu egiten dit Korrika egitea, lagunekin egotea, giroa...”

Batzuk diote, korrika egitea koldarra dela?

Ni orduan, oso koldarra naiz! Burua arintzen dit. Nik korrika egin beharra daukat. Astebete korrika gabe baldin banago, gorputzak eskatu egiten dit, lagunekin egotea, giroa... Egun batean atsedena badagokit, ezin naiz etxean gelditu, pistara joango naiz.

Lesionatuta zaudenean, beraz, jasanezina egongo zara.

Gaizki, oso gaizki. Lesioa kirolaren alderik txarreana da.

Korrika egitea zaletasuna, obsesioa...zer da?

Nire amari galdetzen badiozu, obsesioa dela esango dizu. Niretzako, zaletasuna da. Ahal badut, korrikan jarraituko dut.

Urtean zenbat kilometro egiten dituzu, gutxi gorabehera?

4.500 kilometro inguru. Ez dakit nire kotxeak hainbeste egiten dituen. Maratoia prestatzen ari garenez, astean 130-140 kilometro egiten ditugu, bataz beste.

Distantzia bat:

Orain prestatzen ari naizelako, maratoia. Baina aukeratu behar izango banu, maratoi erdia, 21 kilometro. Maratoia baino hobeto joango litzaidakeen proba mota izango litzatekeela uste dut.

Karrera bat:

Asko gustatu zitzaidan karrera bat, Alemanian, Bonn-en irabazi nuen karrera bat izan zen. Maratoi erdia zen. Taldekide bati laguntzera joan nintzen, karreran atera eta irabaztea lortu nuen. Probako marka hautsi nuen. Hiru mila lagun atera ginen. Denak zu animatzen... asko gustatu zitzaidan, batez ere, ustegabekoa izan zelako.

Zein da zure ametsa?

Maratoian marka zehatz bat egitea. Momentu honetan, 2 ordu eta 25 minutuko marka daukat eta 2 ordu eta 21-22 egitea. Uste dut lortzeko aukera dagoela. Momentuko ametsa hori litzateke. Nire betiko ametsa Euskadiko eta Gipuzkoako txapelkun izatea izan da eta hori lortu dut. Orain bertan, ametsa, maratoiko denbora hobetzea da.

Zaletasun bat:

Kirol guztiak eta bidaiatzea.

Korrikaren aitzakian mundua ezagutzen ari zara beraz.

Bi zaletasunak uztartzen badira, oraindik hobeto. Niri beti gustatu izan zait bidaiatzea. Iazko udan adibidez, Olinpiar jokoak ikusten egon nintzen. Oporretan noanean zapatila pare bat, praka motzak eta nikiren bat eramaten dut maletan. Hiria ikusteko aukera ona da.

da. Apirilean maratoi askorik ere ez dago. Londresko hor dago baina dorsala hartzea asko kostatzen da. Agentzia baten bidez lortu behar izaten da eta diru asko kostatzen da. Parisa ere joan nahi genuen baina izen-ematea itxita zegoen. Gelditzen zena eta zirkuiturik onena zuena Rotterdam zen.

New Yorkeko maratoiak ere ospea badu. Izan al zara sekula?

Ez, baina gustatuko litzaidake joatea. Marka egitea zaila den maratoia da. Marka baino gehiago, postu ona bilatzen da. Momentuan, ni denbora hobetzen saiatzen ari naiz eta hori lortutakoa, joango naiz egunen batean New Yorkera. Bostongo maratoia egina dugu. Honek korrikalarien artean prestigio handiagoa du.

Lasterketa batzuekin horixe gertatzen da, izena dutela eta hobeak badaudela korrikalarientzat.

Niri adibidez, Behobia, ez zait gustatzen. Bonbo

gehiago dauka. Baina jendeak karrera hori prestatzen du eta errespetatu egin behar da. Nik nahiago ditut beste karrera batzuk. Normalean, federatuek ez dugu Behobian parte hartzen. Guretzat data txarra ere bada. Urrian edo azaroan ezin zara ondo egon, denboraldi osoa aurretik daukazunean. Egunen batean parte hartuko dut, egin behar bada egingo dut, baina ez nau erakartzen.

Eta Aizkorriko mendi maratoia?

Ez! Eta ez dut uste inoiz ikusiko nautenik. Gogorregia iruditzen zait, nahiz eta badagoen jendea, errepideko maratoia mendikoa baino gogorragoa dela esaten

duena. Ez dut uste mendian ikusiko nautenik. Ez dut oso ozen esango inoiz ez dudarik egingo, baina ez dut uste.

Korrikarako gero eta zaletasun gehiago al dago?

Gero eta jende gehiago ateratzen da korrika egitera, eta hori polita da. Jendeak gehiago entrenatzen du, eta hobeto ere bai. Jendea hobeto prestatua dagoela ikusten da. Askok jartzen dituen helburuak ez dira lorgarriak izaten, baina jende gehiago ikusten da kalean. Guri behintzat gustatu egiten zaigu. Dena den, boladak izaten dira: Behobieren inguruan, eta San Silbestrearen inguruan izaten da gehiena. Behin San Sil-

bestrearen ondoren, betikokak gelditzen gara.

Korrikalarien artean giro ona al daukazu? Elkartzen al zarete?

Gehinetan gute kasa ibiltzen gara, bakoitzak bere entrenamendua eta bere erritmoa baitauka. Normalean, asteazkenetan, serieak egiten ditugu eta gehienak elkartzen gara pistan. Saiatzen gara elkartzen, ordu eta erdi bakarrik korrika egin edo beste batekin egin, alde handia dago.

Prestatzaile fisikoa izango duzu.

Jon Etxeberrria da. Txindoki taldekoa da, abiadura egiten eta beti entrenatu gaitu. Garrantzitsua da norbaitek entrenamenduak eramatea.

Zein entrenamendu mota egiten duzu?

Aurrendenborealdian, pare bat hilabetean, astean bi aldiz, gimnasioan aritzen naiz, hanketako indarra lantzeko. Entrenamenduak, egunero ezberdinak dira. Egun batean ordu bete erritmo zehatz batean korritzea

Oporretan noanean zapatila pare bat, praka motzak eta nikiren bat eramaten dut maletan.

Altamirako pista berriak abiadurako probetan ibiltzen direnei egiten die mesede, iraupenekoentzat ez da hain ona.

izango da, bestean ordu eta erdi, beste erritmo batean... ez da zapatillak jarri eta korrika egitea. Pulsometroarekin joaten gara eta prestatzaile fisikoak egun horretan zein pultsaziotan joan behar naizen zehazten dit. Erritmo aldaketak... asteazkenetan edo larunbatetan beti egoten dira serieak pistetan. 3.000-ko serieak, 1.000ko serieak... egun bakoitza ezberdina izaten da. Horrela hobea da.

Pistan ere izaten dira 5.000 eta 10.000 metroko lasterketak. Ez al duzu parte hartzen?

Bost milakoren bat egiten dut, baina besterik ez. Inoiz ez zait gustatu. Egin behar baldin bada, egin egiten da. **Altamirako pista berria zer iruditzen zaizu?**

Niri zaharra gehiago gustatzen zaitzaidan. Berria nahiko gogorra da. Pista batetik bestera ezberdintasuna dago eta pista hau, pista gogorra da eta abiadurako probetan ibiltzen direnei egiten die mesede. Fondistentzat ez da hain ona, itzuli asko emanez gero, hankak kargatu egiten dira. Hurrengo egunean hankak nabaritu egiten dute, nekatuta daudela. Pista zaharra, denarako zen: ez zen oso ona abiadurarako eta ez zen oso on iraupenekoentzat; entrenatzeko zen gehiago.

Batzuk behintzat gustura egongo dira.



Abiadura egiten dutenak oso gustura daude, gu ez hainbeste. Jarritakoa onartu behar.

Inoiz pentsatu al duzu korrika serio hartzea?

Ez, ez! Nik ez dut uste askoz gehiago hobetuko nukeenik. Deskantsatuago egongo nintzateke, gehiago entrenatu ahal izango nuke... zerbait hobetu bai baina honetatik bizitzeko adina ez. Oso-oso ona izan behar zara honetatik bizitzeko. Txikitatik dezente nabarmendu beharko zinateke. Euskadi mailan ondo gabiltza baina Espainiako txapelketetara joaten garenean, 30-40. postu inguruan gelditzen naiz. Norbait izateko, lehenengo hamarretan gelditu behar zara.

Noiztik zabilta korrika?

Txikitatik, 10 urtetatik korrika nabil. Altamirakoa naiz eta futbolaren eta korrikaren artean aukeratu behar nuen, eta azkenean korrika aukeratu nuen. Futbolean

ere aritzen nintzen baina niri beti korrika egitea gustatu zait.

Korrikalarien artean kompetentzia handia al dago?

Azkenean denok elkar eza-

gutzen dugu eta lagunak gara. Baina, dorsala jartzen dugunean ez dago lagunik. Ahal badut irabazi egingo diot. Baina behin karrera bukatutakoan, berriz ere lagunak gara.

Zapatila ugari

Zapatilak garrantzitsuak izango dira.

Hori ere beste mundu bat da. Zapatila batzuk, entrenatzeko, kilometroak egiteko dira. Beste batzuk, azkarrago joateko. Beste batzuk, lehiaketetarako... Lehiaketetakoek, ez dute ezertxo ere pisatzen, baina amortiguazio gutxi daukate. Karreran ondo zoaz, baina hurrengo egunean hankak nabaritu egiten dute. Entrenamendurako zapatilek amortiguazio gehiago daukate, gehiago pisatzen dute, kilometro gehiago egin ditzakezu eta hurrengo egunean hankak ondo eduki. Gero, iltzeak daude... denetik dago.

Zenbat zapatila pare behar dituzu beraz urtean?

Zapatila pare bakoitzak bi edo hiru hilabete irauten dute. Entrenamendurako zapatilak, lehiaketetarako... Maratoi baterako zapatilak erosten badituzu, bizpahiru aldiz beraiekin entrenatu behar duzu eta gero utzi. Behin maratoia egindakoan, zapatila horiek ez dute balio. Alegia, merkea ez dela korrika egitea. Baina garrantzitsua da, oinek nabaritu egiten baitute. Oinek nabaritu egiten dute ez dutela behar bezala amortiguatzen... zapatilak begiratu eta ikusteko zapatila ez dago gaizki baina zuk badakizu zapatila horiekin hankak kargatzen ari zarela.

Lazkaoko Goierriko Euskal Eskolak, Beasaingo Arrano, Ordiziako Hitzaro eta Itsasondoko Arbelaitz elkarteek antolatuta

Goierriko II. Kultur Zirkuitua prest


Iaz Goierriko lau herri ezberdinetako lau elkarte elkartu eta Kultur Zirkuitua antolatu zuten, euskarazko kultur ekintzen egitaraua

osatzu. Iazko Kultur Zirkuituaren arrakasta ikusita, aurten formula errepikatu egingo dute. Honela, Beasaingo Arrano Kultur El-

karteak, Ordiziako Hitzaro Euskara Elkarteak, Itsasondoko Arbelaitz Elkarteak eta Lazkaoko Goierriko Euskal Eskolak, martxora-

ko, kultur ekitaldien egitaraua prestatu dute.


Herri bakoitzean, ekitaldi bana izango da, formato eta estilo ezberdine-



Arrano Kultur Elkartea (Beasain)

**Martxoak 7, 13:00etan,
Beasaingo kaleetan zehar**

Iñaki Apalategi, Jon Martin eta Aitzol Barandiaran bertsolariek eta Unai Larreategi eta Ane Larreategi trikitilariak, 'Zazpi astoren gainean'. "Tabernaz taberna bertotan aritzea gustuko dute bertsolariek eta baita entzuleek ere. Momentuko pronto hori, trikitixa eta panderoa nahastuta, edonoren gustuko koktela egin daiteke. Ez da ohiko trikiti doinurik joko, ez da ohiko bertso eta bertsomolderik entzungo... Tradizio eta ohikoak diren bi adierazpide, modernitatea eta ohikotasunetik kanpo".



Hitzaro (Ordizia)

**Martxoak 12, 21:00etan,
Ordiziako D'Elikatuz zentroan**

Xabier Amuriza eta Jon Maiaren, 'Mende baten aldarriak'. "Ahozko literaturaren altxorra jendearen belarrietara heltzea da ikuskizun honen asmoa. Kantatzeko ez ezik, historia kontatzeko ere balio dute bertsoek. Asmo honekin, XX. mendeko giro politiko eta soziala (gerrateak, gosetea, emigrazioa, frankismoa...) deskribatzen duten aleak aukeratu dituzte Xabier Amuriza eta Jon Maiak ekitaldi honetarako.

takoak, ahalik eta jende gehiengana iristeko helburuz: martxoaren 7an, Beasainen, bertso eta trikiti doinuen 'Zazpi astoren gainean'; martxoaren 12an, Ordizian, Xabier Amuriza eta Jon Maiaren 'Mendebaten aldarriak'; martxoaren 18an, Itsasondon, Lakrikun taldearen 'Grebangaude' antzezlan; eta martxoaren 25ean, Lazkaon,

Ansa eta Astiazaranen 'Piano bat bertsoan'.

Elkarlanean, euskara eta euskal kultura bultzatuz


Kultur Zirkuitu honek helburu bat baino gehiago ditu antolatzaileen esanetan. Batetik, Goierriko bailaran elkarte desberdinak egonik, elkarren arteko harremana estutu nahia. Beste-

tik, kulturaren bidez euskararen erabilera sustatzea eta Goierriko jendeari euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea.

"Kultura-espresio mota ezberdinen bidez Euskal kultura lantzen dutenen topaleku izan nahi du Goierriko kultur zirkuitu honek eta poliki-poliki Goierriko bailaran lekua hartuz joan. Kultur eskaintza zabal ho-

nen bidez goierritarrak eta goierritarrak ez direnek beraien aisialdia euskaraz gozatzeko aukera izan dezaten lortu nahi dugu", gaineratu dute antolatzaileek.

Euskara Elkarteen Topaguneak antolatzen duen Kultur Errotaren eskaintzatik antolatutako ekitaldiak dira. Foru Aldundiak, aurren, ez dio dirulaguntzarik emango Kultur Errotari.



Arbelaitz elkarte (Itsasondo)

Martxoak 18, 22:00etan, eskolan

Lakrikun Antzerki Taldearen, 'Grebangaude' antzezlan. "Hiru garbitzailek, grebara joatea erabaki dute, grebaren zergatia hasiera batean inork argi ez badu ere. Hirurak elkartu egingo dira eta solasari ekingo diote. Oso desberdinak dira beraien artean eta gaiak jorrazteko orduan, ezberdintasun hauek, agerian geratuko dira. Ironia handiz, maitasunaz, familiaz, sexuaz, ilusioez...aritutako dira. Emakumezkoen pentsaera ikuspegi desberdinak azalduz".



Goierriko Euskal Eskola (Lazkao)

Martxoak 25, 18:30ean, Lazkaoko Gerriko txokoan

Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaranen 'Piano bat bertsoan'. "Bertsolaritzan bezala, musikarekin ere inprobisatu daiteke. Hori frogatu nahi dute 'Piano bat bertsoan' izeneko erronka honetan parte hartzen dutenak. Bertsolaritzan bezala, gai jartzailerik ere izango da, kasu honetan publikoa bera. Ikuskizuna ikustera doanak entzun nahi duen euskal kantaren izena jarriko du papertxoan. Musikaiek zozketa bidez ateratzen den papertxoan jartzen duen kanta jo beharko dute".

Goierrri

Korrika 16

Korrikaren inguruan herrietako Korrika Batzordeek antolatutako ekintzak dituzue jarraian:



Dantza ikastaroa

Beasainen, otsailaren 25ean, martxoaren 4an, 11n eta 18an, 19:00etatik-20:00etara. Beasaingo AEK-n azpian dagoen Ostadar dantza taldearen lokalean. Doan izango da. Izena emateko: 943 88 93 40 edo 943 88 91 74.

Talo ikastaroa

Martxoak 5, arratsaldeko 6etan, Beasaingo mendizale elkartearen. 2 euro.

Arropa salgai

Beasainen, Herri Dendan, ostiraletan eta larunbatetan, 18:00etatik 20:30era. Astearte goizetan, 10:30etik 12:30era.

Ordizian, asteazkenetan, azokan, arropa postu bat egongo da.

Lazkaon, Gerriko liburudendan Korrika arropa salgai dago, eta aukera dago pin laguntzaileak erosteko.

Korrika afaria

Martxoaren 27an eskualdeko afaria egingo da, Beasainen, 20:30ean.

Ataungo ekitaldiak

Martxoaren 4, 11, 18 eta 25ean, '**Korrika dokumentala**', Herri Antzokian, 21:30ean.

Martxoak 14, **mus txapelketa** 16:00etan, San Gregorioko Pelotazale eta Artadi elkarteetan.

Martxoaren 15ean, **Txan Magoa**, 17:00etan, Herri Antzokian. Sarrera: 3 euro.

Beasain

Martxoko ekintzak

Martxoak 3, asteartea:

17:30etan: Ipuin kontaketa: 'Animalien ipuinak'. Udal Bibliotekaren.

Martxoak 5, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'Un verano en la Provenza' filmaren proiektzioa. Usurbe Antzokian.

Martxoak 7, larunbata:

10:00etan: Ipuin kontalaritza tailerra, Gaztegunean.

17:00etan: Haur zinea: 'Shin Shan eta helduen inperioa', Usurbe Antzokian.

Martxoak 8, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Ibilaldi neurtua.

Martxoak 12, osteguna:

09:30etan: Antzerkia ingelesez ikasleentzat. Usurbe Antzokian.

21:00etan: Zine-kluba: 'Aliento' filmaren proiektzioa. Usurbe Antzokian.

Martxoak 13, ostirala:

22:15etan: Antzerkia, 'Maldito parne'. Usurbe Antzokian.

La Salleren mendeurreneko ekitaldiak

Martxoaren 7an, eguerdiko 12:00etan, mendeurrenaren aitzakian, Joseba Imazek egindako egindako 'Ehun urte, milaka bizi' liburuaren aurkezpena izango da La Saller San Jose ikastetxean.

Arratsaldean, berriz, 17:00etan, Potxin eta Patxin pailazoak izango dira ikastetxeko pilotalekuan eta jarraian, Loinazko San Martin plazan, buruhandiak.



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846

627 505 687 (instalakuntzak) - 670 471 106 (mantenimendua)



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Mantenimendua
- Telekomunikabideak

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

Helduen,
bikoteen,
sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Lazkao

Oin Arin Arerian

Otsailaren 27an, ostiralean, Oin Arin dantza taldearen emanaldia izango da, Areria Kultur Gunean, 19:00etan.

Eskulan tailerra

Hurrengo egunean, otsailaren 28an, eskulan tailerra izango da, plazan, 16:30ean. Klarionez eskulturak egiten ikasiko dute 5 eta 6 urteko haurrek.



Petti

Areria Kultur Guneko kontzertuekin jarraituz, martxoaren 13an, Petti abeslariaren saioa izango da, gaueko 10etan.

 Creativity and Innovation
GERTU European Year 2009
ENPRESA AHOHKULARIAK - ABOKATUAK
San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN T: 943 16 21 92 F: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

 **Mendizabal, C.B.**
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Ordizia

Alzheimer

Ordiziako Jubilatuz eta Pentsiodunen egoitzan doako tailerrak ostegunean, otsailak 26, hasiko dira. Afagi, Gipuzkoako alzheimerrak jotako gaixoen sendiarztekoen elkarteak antolatu ditu, Ordiziako Udalaren laguntzaz. Hilean behin egingo dira eta gaixoen familiartekoei eta gogoko duten goierritarrentzat izango dira. Eskaintza berria Iñaki Dubreuil, Ordiziako Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, eta Josune Méndez, Afagiko kideak, aurkeztu dute.

Formazio programaren metodologia parte hartzailea da. Modu horretan, tailerretako kideen parte hartzea sustatzen da, baita esperientziak elkartrukatzea ere, guztientzat interesgarri diren inguruan. Afagiren esanetan, kurtsoek "gaixoaren artapenarekin zerikusia duen gai bat poliki-poliki eta sakonki, adituekin lantzeko aukera ematen dute".

Saioak otsaila, martxo, maiatza, urria eta azaroko azken ostegunetan izango dira, 16etatik 17:30etara.

Era berean, Alzheimer eta beste dementzia batzuen banakako informazio, laguntza eta aholkularitzako programa, doakoa baita, ematen segitzen dela gogoratu du Afagik. Ordiziako jubilatuen egoitzan eskaintzen da, astelehenero, 10:00etatik 13:00etara.

Tailerretan parte hartzeko izena eman behar da eta informazio programara zuzentzeko ordua eskatu behar da. Kasu batean zein bestean 943 297 118 telefonora deitu behar da.

Arraiak parrilan
© 943 65 21 76
ABALTZISKETA
ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA


Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia
Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldean)
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH,
Batxilergoa, moduluak

INFORMATIKA:
Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza,
Kimika eta Fisika

INGELERA:
Maila guztiak, PET,
First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**



Gabiriako Barretxe baserriko sendia 1950 inguruan

Argazkian Gabiriako Barretxe baserriko sendia ageri da Argentinako lehengusuekin 1950. urte inguruan.


Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Osinalde (Argentinako lehengusua), Julian Apaolaza Elozegi (semea), Joxe Apaolaza Elozegi (semea), Juan Apaolaza Osinalde (aita), Natibidad Elozegi Odriozola (ama), Segurako senar-emazteak, Juana Oiarbide Astaburuaga (amona) eta Osinalde (Argentinako lehengusua).

Makurtuta: Mari Karmen Apaolaza Elozegi (alaba) eta Isabel Apaolaza Elozegi (alaba).


GRAFICAS
EGUZKI
 INPRIMATEGIA
 NAFARROA ETOR, 17
 Tel 943 88 94 82
 Faxe 943 88 60 44
 BEASAIN


AUZOKI
Komunitateen administrazioa
 Kol. Zenb. 599
 Urdaneta 52-behea
 ORDIZIA
 Tel.: 943 087 486

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.


MUJIKA 19
LIBURUDENDA
 Tel. / faxe: 943 88 11 94
 Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Autowag



☎ 943 888 254
 ☎ 943 888 266
 Faxe: 943 888 105
 N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



ALTAMIRA
JATETXEA

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net

fabrikone

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Azken Etxebizitzak eta garajeak



Zaldibian



178.500 eurotik aurrera

943 21 04 54
atxegi@atxegi.com

PROMOCIONES INMOBILIARIAS
Atxegi